Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 19337 2FAR5-NGTDU-H5E6M B1719A27D1747257700EBF15E16FBC0851C13238) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=12&idioma=1

BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)

Ayuntamiento de BARRUNDIA
(ÁLAVA)

IRAGARKIA

2022ko ekitaldirako aurrekontu orokorra egitaratzeko udal araudiaren III. eranskinean honako hau azaltzen da:

BARRUNDIAKO ADMINISTRAZIO BATZARREN GASTUEN FINANTZAKETARI BURUZKO EKARPENAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK.

LEHENENGOA.- XEDEA.

Oinarri hauen xedea da Barrundiako udalerriko administrazio batzarren finantzaketaren araubide juridiko orokorra arautzea.

BIGARRENA.- DEFINIZIOAK.

Finantzaketa da, oinarri hauen eraginetarako, udalak toki administrazio horiei egiten dizkien ekarpenak, haien eskumeneko esparruan jarduerak egiteak dakarzkien gastu arruntei aurre egiten laguntzeko.

HIRUGARRENA.- ONURADUNAK.

Administrazio batzar hauek izango dira onuradunak: Audikana, Dallo, Elgea, Etura Etxabarri Urtupiña, Gebara, Heredia, Hermua, Larrea, Marieta-Larrintzar, Maturana, Mendixur/Mendijur eta Ozaeta.

LAUGARRENA.-ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

1.- Toki erakundeen gobernu organoak legez eratuta egon behar dute.
2.- Administrazio batzar bakoitzaren errejidore lehendakariak edo hark izendatzen duen pertsonak Barrundiako Udaleko idazkaritzan aurkeztu beharko du, hurrengo urteko irailaren 30ra baino lehen, administrazio batzarraren kontuen balantze orokorra, ekitaldi bakoitzeko sarrera eta gastuekin.
3.- Onuradunek men egin beharko diote Udalak egin dezakeen finantza egiaztatze eta kontrol orori.

BOSGARRENA.- UDALAREN BETEHARRAK.

Udalak betebehar hauek izango ditu:

1.- Udalak urtero jarri beharko du bere aurrekontuetan partida bat transferentzia arrunt gisa, erakunde horiek oinarri hauetan ezarritako moduan egiten dituzten gastuak finantzatzen laguntzeko.
2.- Udalak ekarpen bakarrean egingo ditu transferentziak, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 30a baino lehen, baldin eta erakundeek bete badituzte oinarri hauetan adierazitako beteharrak.

SEIGARRENA.- FINANTZAKETA IRIZPIDEAK.

Finantzaketa arau honen arabera burutuko da:

Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 19337 2FAR5-NGTDU-H5E6M B1719A27D1747257700EBF15E16FBC0851C13238) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegotiza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=12&idioma=1

BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)

Ayuntamiento de BARRUNDIA
(ÁLAVA)

1.- Urteko aurrekontuko partidatik, % 50a administrazio batzarrentzat era berdinean zatikatuko da.
2.- Urteko aurrekontuko partidatik, %25a aurrekontuzko ekitaldiaren urtarrilaren 1eko herri bakoitzean dauden biztanleen arabera banatuko da.
3.- Urteko aurrekontuko partidatik, %25a 2022ko ekitaldiko hiri ondasun izaera duen OHZko erroldan dauden etxebizitzen zenbaketaren arabera banatuko da.

ZAZPIGARRENA.- BATERAGARRITASUNA BESTE DIRU SARRERA BATZUEKIN.

Oinarri hauetan ezarritako finantzaketa bateragarria da administrazio batzar bakoitzak dituen berezko diru sarrerekin, bai eta beste edozein entitate publiko zein pribatutatik jaso dezakeen beste edozein dirulaguntza edo sarrerarekin ere.

ZORTZIGARRENA.- ZEHAPENAK.

Oinarri hauetan ezarritako betebeharretakoren bat ez betetzeak urteko finantzaketa ez jasotzea ekarriko du.
Zehapena indarrean egongo da betebehar horiek bete arte.
Edonola ere, eragindako administrazio batzarrari egoztekoak diren arrazoiengatik transferentzia ez bada egiten abenduaren 31 baino lehen, hark galdu egingo du eskubidea dagokion ekitaldiko finantzaketa jasotzeko.

Denen ezagutzarako argitaratzen da.

ALKATEA,